



Usurbilgo Udala

2021EKO URTARRILAREN 25EAN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Andoni Atxega San Sebastian
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ez da bertaratu: Aroa Etxeburua Ugartemendia

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.


Usurbilen, 2021eko urtarrilaren 25ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

Alkateak adierazi du ezohiko plenoa deitu behar izan dutela asteazkenean amaitzen delako Beterri-Buruntzako udalen arteko lankidetzaz hitzarmena.

Bestetik, Irantzu Arrizabalaga idazkariaren azken plenoa izango dela esan du.

Irantzuren izendapena abenduaren 31ra artekoa zela esan du, tartean idazkaria hautatzeko prozesua abian zela eta prozesua amaitu dela zehaztu du. Foru Aldundiarekin adostu zutela dio abenduaren 31z geroztik Irantzuk akumulazioan jarraitzea idazkari berria izendatu bitartean. Baina guzti honetan norabide aldaketa bat gertatu dela esan du, izan ere aurreko asteko asteazkenean Garazi Etxeberriak, aurreko udal idazkaria izan zenak, gaikuntza nazionaleko idazkari-kontuhartzaile postua eskuratu du eta Usurbilgo Udalera itzultzea



Usurbilgo Udala

eskatu du. Eskaera hori ostiralean Foru Aldundira bideratu zutela esan du eta oraindik Foru Aldundiaren erantzun ofizialik ez dutela jaso, baina ahoz harremanak izan dituztela dio eta ahoz bada ere baiezkoa jaso dutela.

Garazi Etxeberriak otsailaren 1ean hasteko eskaera egin dutela esan du.

Alkateak eskerrak eman dizkio Irantzu Arrizabalagari egindako lanagatik.

1.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO ABENDUAREN 14TIK 2021EKO URTARRILAREN 15ERA (2020/942-2021/026).

Alkatetzak 2020ko abenduaren 14tik 2021eko urtarrilaren 15era bitartean (2020/942-2021/026) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

2.- BETERRI-BURUNTZA TOKI-GARAPENAREN, EKONOMIA-SUSTAPENAREN ETA ENPLEGUAREN ARLOKO UDAL-LANKIDETZARAKO 2017KO URTARRILAREN 27KO HITZARMENA ALDATZEA ETA LUZATZEA.

Alkateak adierazi du puntu hau Garapen Ekonomiko eta Hezkuntza batzordeak diktaminatuta datorrela eta Beñat Larrañagari eman dio hitza azalpenak eman ditzan.

Beñat Larrañagak adierazi du lankidetzeta-hitzarmen hau duela lau urte sinatu zela, nahiz eta lanketa atzeragotik datorren. Planteamentua mankomunitatea sortuta izatea zela baina zoritxarrez horretarako adostasunik ez dutela lortu zehaztu du. Hala ere, mankomunitatea sortu izan balitz ere, hitzarmen hau luzatu beharra zegoela dio aurretik datozen proiektu, programa eta zerbitzuen likidazioa gauzatu ahal izateko.


Hitzarmen honek 30 programatik gora izan dituela indarrean azpimarratu du.

Bertan egon diren teknikariei esker, izugarrizko sarea sortu dela eta bertako jarduna erreferentziazkoa izan dela goraipatu du.

Beñatek salatu du Andoaingo ordezkariaren eskutik lidergotza ez dela batere eraginkorra izan. Era berean, lau langileetatik dagoeneko hiru galdu dituztela eta laugarrena ere bere kontratua amaitzean badoa, beraz lau langile hauek sortu duten sarea eta duten ezagutza ere badoa, hau izugarrizko galera izango dela uste dute. Ikusteko dagoela dio galera honek nola eragingo dien herritarrei.

Hemendik aurrera, lortu ez dituzten adostasunak eta erabakiak lortzea eta lehenbailehen mankomunitatea sortu ahal izatea espero dutela azpimarratu du.

Jarraitu du esanez EAJ eta PSEren aldetik hitzezko adostasuna badagoela gaur egungo proiektu, zerbitzu eta programekin aurrera jarraitzeko, guztiak aho batez onartutako programak izan direla dio, baina baliabideak jartzeko garaian ez dela gauza bera gertatzen



Usurbilgo Udala

dio, EH Bilduren ustez minimoki dauden baliabideak mantendu behar dira eta beste alderdiek gutxitu egin nahi dituzte. Zaila ikusten dutela dio baliabideak gutxituta gaur egungo konpromiso guztiak mantentzea.

Josune Urkolak esan du Beñatek Andoaingo alkatea aipatu duela baina Andoaingo Udalak ere zer esana edukiko duela galdetzen du, ze Andoaingo Udalak ezin duela esan baitu.

Beñat Larrañagak erantzun dio lau urte hauetan Andoaingo Udalak zama haundi bat eraman duela bere gain eta zama hori denek aitortu diotela. Andoaingo Udalak adierazi zuela dio kontratazioekin ezin zuela jarraitu; horren aurrean Hernani, Astigarraga eta Usurbilgo udalek kontratazioekin jarraitzeko prestutasuna agertu dutela dio baina Urnieta, Lasarte eta Andoaingo udalek oztopoak jarri dituztela.

Josune Urkolak galdetu du ea ezetz esan duten.

Beñat Larrañagak erantzun dio arrisku batzuk hartzeko prest daudela baina beste arrisku batzuk hartzeko ez.

Jarraitu du esanez beraiek garbi zutela eta horrela helarazi diotela teknikariek ere, jarraituko balute gaur egungo zerbitzuak ematen eta lehen esan duen bezala ezagutza eta sare hori mantentzen, gaur egungo langileek aukera izan behar zutela. Eta horretarako modua zen gaur egungo lanpoltsa berdina erabiltzea. Lanpoltsa hori erabiltzeko ados zirela dio baina hiru udalerrri horietatik esaten zena zen lanpoltsa horretako hurrenkera ez zela mantendu behar.


Beraien ustez arazo hori borondate politikoarekin konpondu zitekeela azpimarratu du.

Langileei ez zaiela behar bezala jakinarazi dio, formak ez direla egokiak izan eta hori bai dela dio lehendakaritzaren ardura.

Pena handia sentitzen duela dio, ze zaila egiten baitzaio ulertzen aho batez erabakitako programa, zerbitzu eta proiektuekin aurrera egin badute orain arte, ze oztopo dagoen momentu honetan lau teknikari horiekin jarraitzeko, eta ez lankidetzaren hitzarmenaren luzapenean bakarrik, orain mankomunitatearen sorreran baitaude.

Alkateak gaineratu du beste udalok Andoaingo Udalari eskertu besterik ezin diotela egin hartu duen arduragatik eta lankidetzaren hitzarmenak suposatu dion zamagatik. Hori dela eta, hitzarmen horren luzapenean esaten da kontratazio berriak egin behar izatekotan Andoain ez beste udalek egitea.

Batzarkideek, Garapen Ekonomiko eta Hezkuntza batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:



Usurbilgo Udala

“Esp.zk.: HE.06/2021-0004

Aurrekariak

Kontuan hartuz, sinatutako “Udal mailako lankidetzaren hitzarmena toki garapenaren sustapen ekonomikoaren eta enpleguaren alorrean” Beterri Buruntza eskualdeko udalen artean 2017.01.27ko datarekin.

Kontuan hartuta indarrean dagoen Udal Lankidetzaren Hitzarmenaren seigarren estipulazioak, hasiera batean lau urteko iraupena duenak, hau ezartzen duela: hitzarmena indarrean dagoen bitartean eskualdeko garapen agentzia (Mankomunitatea) eratzea adosten bada, hitzarmena amaituzat emango da eta hitzarmenaren babesean abian jarritako programak, proiektuak eta zerbitzuak aipatutako Mankomunitatera lekualdatzeko mekanismoak ezarriko dira.

Kontuan hartuta hitzarmenaren hasierako indarraldia 2021eko urtarrilaren 26an amaituko dela, eta, hala ere, Mankomunitatea ez dagoela formalki eratuta, eta, egon izan balitz ere, orain oraindik ez lituzke bere gain hartuko hitzarmena indarrean dagoen bitartean eskualdeko udalerriek abian jarritako programa, proiektu eta zerbitzu guztiak.

Kontuan hartuta hitzarmenaren bederatzigarren estipulazioak ezartzen duela, hasieran lau urteko indarraldia izan arren, "Beste lau urterako luzatu ahal izango dela, sinatzaileek aho batez hala erabakita".

Kontuan hartuta agertutako udalerriak bat datozela hitzarmena gehienez ere lau urtez aldatzeko beharrezkin, hargatik eragotzi gabe Mankomunitatea eratu eta beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak eskuratu ondoren, abian dauden programa, proiektu eta zerbitzuak eskualdatzea, eta, gainera, Amankomunazgoak bere gain hartu ahal izateko legezko baldintzak betetzea, udalerriak jakitun baitira diruz lagundutako programa batzuk ez direla Administrazio Publikoaren baimenik gabe eskualdatu ahal izango.

Kontuan hartuta 2020ko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikulua aukera ematen duela administrazioen arteko hitzarmenak, aipatutakoa bezala, beste lau urtez luzatzeko.


Kontuan hartuta Udal Kooperazio hitzarmenari atxikituriko Batzorde Kudeatzaileak 2021eko urtarrilaren 14an egindako bilkuran hartutako erabakia aipaturiko Udal mailako Lankidetzaren Hitzarmena aldatu eta luzatzeko gehienez ere 4 urtetarako .

2021ko urtarrilaren 19an egindako Garapen Ekonomiko eta Hezkuntza ez-ohiko Batzordean irizpen honen proposamena Udalbatzari egitea onartu da Agurtzane Solaberrieta, Beñat Larrañaga, Josune Urkola eta Patxi Suarezen aldeko botoekin.

Udalbatzarrak, aho batez, honako erabakiak hartu ditu:

ERABAKIAK

1.- Onartzea Toki-garapenaren, ekonomia-sustapenaren eta enpleguaren arloko udal-lankidetzarako 2017ko urtarrilaren 27ko hitzarmena aldatzea eta luzatzea Beterri Buruntza eskualdea osatzen duten udaletxeekin, hau da, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria,



Usurbilgo Udala

Urnietako eta Usurbilgo, dokumentuan bertan jasotzen diren baldintzetan. Hitzarmen horren gehienezko iraupena 4 urtetarako aurrikusten da.

2.- Aipaturiko lankidetzako hitzarmena sinatzeko, Agurtzane Solaberrieta Mesa anderea, Usurbilgo Udaleko Alkatea ahalmentzea.

3.- Akordio honen berri Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnietako Udalei ematea, jasota gera dadin.

4.- Akordio honen berri Udaletzeko lantsail guztiei ematea, jasota gera dadin.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

3.- GALDERA-ESKAERAK.


Mirari Azurmendik gogoeta bat egin nahiko lukeela adierazi du eta testu hau irakurri du:

“IRAGANAK ERAKUSTEN DU ETORKIZUNARI NOLA AURRE EGIN!

Usurbilgo EAJ udal taldean duela urte batzuetatik hona ikusten ari gara, bai oposizioan egoteak dakarren esperientziatik eta batez ere kalean jasotzen ditugun herritarren iritzietatik, askotan, berrikuntzaren bat, obraren bat, proiekturen bat, handia edo txikia egiterakoan udaletxea oztopo bat suertatzen dela beharrezko baimenak lortzeko unean.

Egoera horren arrazoiak mota askotakoak izan daitezke, baina batez ere legeei lotutakoak, bereziki hirigintza gaiei lotutakoak direnean. Jakina da eta horrela izan behar du Udaletxe bat indarrean dagoen legediari lotuta dagoela. Orain, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazten ari garenez, araudi nagusi hau egungo errealitatera egokitzeko unea dela deritzogu, datozen urtetarako Usurbilgo etorkizunaren norabidea markatuko digulako.

Testu inguru honetan behar-beharrezkoa da errealismo-ariketa bat egitea, eta etorkizuna ikuspegi errealista horretatik proiektatzea. Honen adibide garbia, pasa den astean komunikabideek Usurbilgo albisteetan jaso duten albistean aurkitu dezakegu, hau da, Zapategi proiektuari dagokiona. Ere horretan Gureak eta Elkar Fundazioak beraien egoitza berriak ezartzeko proiektuaz ari gara. Denok geunden ilusioz beterik, baina errealitatea gailendu da. Errealitatea da egunerokotasunean enpresek beren errentagarritasuna ziurtatu behar dutela iraungo badute. Honek esan nahi du enpresek etengabe egokitu behar direla merkatuaren eskakizunetara eta egoera berrietara. Hain zuzen ere izapidetze-denbora luzeegiek, urratu egiten dute beharrezkotzat dituzten egokitzapenak. Udal baten eskakizun partikularrek asmo onak izan ditzakete, baina



Usurbilgo Udala

egitasmo bat ez gauzatzera ere eraman gaitzake, batez ere gertu ditugun udalerrietan baldintzak hobeak badituzte edota tramiteak bizkorragoak badira.

Uste dugu Usurbilgo udalerraren indarguneak eta ahulguneak zein diren hausnartzeko garaia dela. Gure udala administrazio laguntzailea izan behar du, proiektuak gauzatzeko bidelagun eta ez oztopoak ipintzen dituena, batez ere aurrez erakargarriak ez diren proiektu edo jarduera batetarako baimenak lortu nahi badira.

Garbi dagoena da, Adunan zerbait hobeto egin dutela Usurbilen baino, azkenean Elkar Fundazioa bertan kokatzeko.”

Alkateak adierazi du prozedurari dagokionean, nahiko lukeela dio udal administrazioa arinagoa izatea. Diru publikoaz ari direnean, administrazioak garantista izan behar duela dio baina Mirarirekin ados dagoela dio prozedura administratiboak luzeegiak direla esaterakoan, eta Mirarik ondo dakien bezala, hori ez da Usurbilgo Udalak ezartzen duena baizik eta leku guztietan dagoen prozedura da.

Hemen instituzioetako agintariek egin beharreko ariketa pendiente bat dagoela esan du, hain zuzen ere, nola egiten den administrazioa arinagoa izan dadin, eraginkoragoa izan dadin eta herritarrei ez horrenbeste itxaron araztea. Beraz, gogoeta horrekin ados dagoela dio.

Gainera, hirigintzako prozedurak are luzeagoak direla esan du, amaigabeak.

Gogoeta horrekin ados egonda ere eta, gustatu edo ez gustatu, Udalak prozedura horiek bete egin behar dituela gaineratu du. Eta harrigarria egiten zaiola dio esaten dutena ze ez dakiela dio iradoki nahi ote duten prozedurak arintzeko arauak ez betetzea.

Bestalde, Zapategi eremuari dagokionean, Usurbilgo Udala HAPOa egiten ari dela bai eta noski gaur egungo testuinguruan kokatutako HAPO bat egiten ari dela azpimarratu du. Zapategiren inguruan iradokitzea iradoki duena, hau da, Adunan Usurbilen baino zerbait hobeto egin dutela, tranpa eta gezurra esatea dela esan dio.

Gai hau abenduko hirigintza batzordean landu zutela esan du eta ez Mirari eta ez bere ordezkoa ere ez zirela batzordean izan, eta ondoren ere ez zutela galdetu batzordean zer landu zen.

Zur eta lur geratu zela dio Noauan irakurritakoarekin.

Udalari errespetu bat eta udala egiten ari den lanari errespetu bat eskatu dio Mirariri.

Bestalde, Usurbilgo Udalak, Elkar-ek eta Gureak-ek elkarrekin prentsa oharra atera dutela esan du. Gaineratu du Elkar eta Gureak harrিতa daudela EAJK atera duen prentsa oharrarekin. Irresponsabilitate bat iruditzen zaiola dio zeren Udala enpresa horiekin uneoro egoera berria gestionatzen ari da, lanean ari dira proiektu hori bideragarri izan dadin. EAJK hala nahi badu, beraiekin biltzeko prest daudela adierazi du. EAJK prentsa ohar horretan errealitatearekin bat ez datozen irakurketak egin dituztela salatu du. Elkar-ek berak adierazi duen bezala, proiektu honi ez badio eutsi da Covida testuinguru zail bat eragiten ari delako, eta euskal kulturari besteak beste kolpe gogorra eman diolako. Hori horrela, Elkar-ek



Usurbilgo Udala

inbertsio potolo hau bertan behera utzi eta beste leku batetan inbertsio merkeago bat lortu ahal izan duela adierazi du. Usurbilen bertan ere Zapategi ez zen beste leku batzuen bila ere jardun zirela esan du baina Elkar-en beharrei erantzuten zion proiekturik ez zegoela gaineratu du.

Alkateak jakinarazi die EAJkoei badakitela beraien ateak beti irekita daudela, informazioa emateko eta konpartitzeko beti prest daudela. Gainera egoera hain zaila den honetan horrelako gaiekin interes politikoak soilik gidatuta aritzea tristura ematen diola adierazi du. Horrelako proiektu sozio-ekonomikoa bertan behera geratzea oso albiste txarra izan dela dio Usurbilgo Udalarentzako eta Usurbilgo herriarentzako, eta horrelako ondorio merkeak atera nahi izatea udal gobernuak kritikatzeko ez dela onargarria esan du.

Mirari Azurmendik esan du ez dela beraien asmoa eztabaida sortzea. Beraien gogoetan legedia aipatu dutela dio eta noski denek bete behar dutela, baina udal batzuk hobeto moldatzen direla esan du eta hori bakarrik jarri nahi dutela mahai gainean.

Alkateak rektifikatzeko eskatu diela baina ez dutela rektifikatuko dio, zeren usurbildarrek ere horrelako proiektuen berri izateko eskubide osoa dute, gainera hitzarmenaren berri dena publizitatu denean.

Bestalde, ondorio faltsuak ez dituztela bota dio, beraien galderak bakarrik egin dituztela esan du. Beraien lana oposiziotik galderak egitea ere badela gaineratu du.

Jarraitu du esanez aspaldian eskatu zuela hirigintza batzordean bizirik dauden espedienteen berri ere ematea. Oso batzorde gutxi egiten direla eta oso gai gutxi ekartzen direla esan du, informazioa lortzeko atzetik ibili behar dela gaineratu du.

Lur Etxeberriak erantzun dio Mirariri teknikariak hor daudela egunero-egunero, gerturatu eta nahi duten guztia galdetzeko aukera dutela.

Mirari Azurmendik esan dio Lur-i beti hori erantzuten diela, teknikariei galdetzea, baina beraien nahi dutena da batzordeetan espediente horiei buruzko informazioa ematea.

HAPOari buruz esan du informazioa aspaldi eskatu zuela, arkitektoaren baja ordezkatzeko ari zen arkitektoa etorri zela bai baina dokumentu bat eskatu zuela eta oraindik zain dagoela dio, hain zuzen ere, HAPOari buruzko indize bat ze dokumentuk osatzen zuten eta zeintzuk zeuden aurreratuta eta zeintzuk ez.

Lur Etxeberriak esan du bera gogoratzen denez, Nora Erdozia Hirigintza batzorde batetara etorri zen espresuki horrela eskatu zitzaiolako eta bertan dena goitik behera azaldu zuela azpimarratu du. Batzorde horretara Mirari ez zela etorri esan du, Carlos etorri zela.

Alkateak baieztatu du horrela izan zela, eskaera egin eta hurrengo batzordera eraman zutela informazio guztia.



Usurbilgo Udala

Beraien buruari galdetu beharko diotela dio ze oposizio lana egiten duten eta udalari nolako jarraipena egiten dioten.

Beti esaten dieten bezala, aurrez esaten badute ze gai landu nahi duten dagokion batzordean landuko dutela azpimarratu die.

Mirari Azurmendik esan dio Zapategikoa behin bakarrik ekarri dela.

Alkateak erantzun dio tramitazio luze batean zeudela eta ez zegoela ezeren berririk emateko. Tartean pandemia bat etorri dela. Hasieratik enpresekin elkarlanean aritu direla eta guzti honen ondoren ere jarraitzen dutela esan du, ostiralean izango duten bilera kasu.

Proiektu honi ordu asko eskaini zaizkiola eta mimo handiz tratatua izan dela azpimarratu du, pena handia sentitzen dutela gaineratu du. Rektifikazioa horregatik eskatzen diola esan dio Mirariri. Ez dakiela dio ze bide hartuko duen EAJK, baina udal gobernua elkarlanerako prest dagoela, atea irekita dituztela esan dio.

Josune Urkolak adierazi du Zapategiko proiektu honek balio handia daukala, hori ez dute zalantzan jartzen. Baina batzorde batetara ez direlako joan, uste du beste momentu batzuk ere badaudela, gainera Elkar-ek ez duela Zapategira joan nahi ez dela aurreko asteko kontua.

Alkateak erantzun dio abenduan eman zutela guzti honen berri eta abendutik hona egunero ari direla lanean proiektu berri horren eraikuntzan. Ez badute berri eman izan da abendutik hona egoera ez delako sustantzialki aldatu. Hirigintza batzorde horretan Patxik galdetu ziola esan du ea hirugarren erosleren bat egon ote daitekeen eta zaila dela dio baina horretan ari direla esan du.

Josune Urkolak aipatu du ez dakiela nondik ateratzen duten "gu ez gara ezer gorde nahian ari" esaten dutenean, beraiek ez dutela esaten dio ezer gorde nahian dabilzanik, non esan duten hori galdetzen du.

Alkateak erantzun dio Noauan argitaratu zuten idatzian iradokitzen dutela.

Josune Urkolak esan du beraiek Udalean sartu zutela galdera eta erantzuna eman diote Noauan publikatu denari.

Alkateak esan dio berari galdera hori ez zaiola iritsi. Bi orduko aldearekin izan dela bata eta bestea erantzun dio.

Gaiak bereizteko eskatu dio Josuneri eta gai honetan delikadeza pixkabat eskatu dio.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak delikadeza hori EAJrekiko eskatu dio alkateari. Argi dagoela esan du udal honetan matematikoki beraien beharrik ez dutela, baina eskertuko diela esan du daukaten prepotentzia hori bulegoan utzi eta umiltasun pixkabatekin etorriko balira hona, hasteko tonua.

Alkateak erantzun dio momentu honetan tonua igo badu izan dela benetan EAJren prentsa-ohar horrekin tristetu eta mindu egin delako. Berarentzako gezurrak bide motza duela esan du.

Josune Urkolak erantzun dio beraiek gezurrik ez dutela esan, ez dakiela dio zergatik esaten duen hori.

Carlos Pérezek adierazi du: “A mi tampoco me hace ninguna gracia que me saquen en el Noaua y me sacasteis en el Noaua.

Vosotros sabeis lo que haceis y nosotros somos conscientes de lo que hacemos.

Estáis gestionando, estáis mandando, no os gusta, lo entiendo.

¿Qué pasa, que no podemos opinar?”


Beñat Larrañagak erantzun dio “lo que se puede hacer es opinar pero lo que no se puede hacer es mentir”.

Carlos Pérezek haserre esan du: “Y vosotros podéis poner a la gente en la picota. Utilizar a la gente para que se te enfrente en la calle, sí, echar a la gente a los lobos, sí, porque no somos capaces de hacerlo directamente. Y sabes de lo que estoy hablando.”

Beñat Larrañagak galdetu dio “no sé si me estás acusando de algo”. Era berean, Carlosi esan dio ez dakiela zer arazo duen baina iruditzen zaio ez dela tokia eta momentua horretaz hitz egiteko. Arazoren bat badu, dagokion lekuan planteatzea eskatu dio.

Aurreko gaiari helduta, Beñatek esan du EAJren idatzian esaten dela oposizioari informaziorik ez zaiola eman eta justu gai bat bizirik dagoenean ekarri dela gaia batzordera eta batzorde horretan informatu dela azpimarratu du.

Mirari Azurmendik esan du bizirik ez, ia hilda dagoenean etorri dela batzordera.



Usurbilgo Udala

Beñat Larrañagak Mirarik irakurri duen testuari erreferentzia eginez bertan esaten dela dio beste udaletan gauzak hobeto egiten direla. Arau administratiboak denentzat berdinak baldin badira, lan administratiboa langileek burutzen dute eta ez dakiela dio iradokitzen ari ote den langileek ez dutela lana egoki egin.

Udalgintza ez dela mugatzen dio ez batzordeetara eta ez plenotara bakarrik, hala ere, badirudiela dio horrela ulertzen dutela. Gaietaz informatzeko aukerak badituzte.

Andoni Atxegak esan dio demagogo batzuk direla.

Lur Etxeberriak informatze aldera adierazi du Adunan ja eraikin bat badagoela, eta aldea dagoela ja eraikin eta urbanizazio bat dagoen lekura joan edo ezer ez dagoen leku batetara joan.

Mirari Azurmendik eskertu dio azalpen hori eman izana.

Alkateak esan du tristea dela eztabaida horrela bukatu izana, agian guztiek gogoeta bat egin beharko luketela dio, zeren gauza bat dela dio eztabaida politikoa eta beste gauza bat elkarri errespetua faltatzea.

Carlos Pérezek esan du "pero las informaciones han salido en el Noaua y las habéis metido vosotros. Tuvimos una conversación y sabes lo que me digistes, que podíais haber ido a más. No me voy a asustar porque tú me digas que me vais a poner en el periódico.

Me molesta mucho que le estés echando la bronca a mi compañera y la llames mentirosa."

Alkateak esan du pleno tamalgarri hau bukatu egingo dutela.

Carlosi zuzenduz esan dio gai horren inguruan luze hitz egin zutela, konpondutzat ematen zuela eta ez duela ulertzen zertara datorren gai hori orain.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:55etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.